

# Hurbilpen bat Tolosaldeko gazteek hitanoari buruz duten pertzepzio, diskurtso eta praktikara

**Josu Ozaita**

*Antropologia ikaslea*

jozaita001@gmail.com

Sarrera-data: 2013-09-30 / Pmartze-data: 2013-12-30

**Laburpena.** Artikulu honetan azaltzen den ikerketa burutzeko metodo kualitatiboa erabili du egileak. Zehazki, 18 eta 28 urte bitarteko gazteen inguruko hiru behaketa eta 12 elkarrizketa baliatu ditu Tolosako gazteek hitanoari buruzko pertzepzioak, diskurtsoak eta praktikak azterketarako. Hitanoaren etorkizuna bera arriskuan egon daitekeela-eta, landa herrixketan eta hiriko kaletan gertatzen diren desberdintasunak edota erabilerarako arau sozialen aldaketa azpimarratzen du egileak. Egoera horrek sortzen duen kezkatik abiatuta ondorioztatzen du hitanoaren etorkizuna funtzionaltasunetik etorriko dela. • **Hitz-gakoak:** hitanoa, hizkuntza-arau sozialak, hizkuntza-jarrerak.

**Abstract.** The author has used a qualitative method to conduct the research explained in this article. Specifically, he used three observations and 12 interviews given by young adults between 18 and 28 to study the perceptions, discourse and practices of young adults in Tolosa on the use of the familiar “you” form in Basque. As the future of the familiar “you” form itself may be in danger, the author stresses the differences taking place in country villages and city streets and the changes in the social norms of use. On the basis of the concern created by that situation, he concludes that the future of the familiar “you” form will come from functionality. • **Key words:** familiar “you” form in Basque, social norms of language, language attitudes.

## SARRERA

### I

Gizarte Antropologiako ikasketak egin bitartean teoriak gain praktika ere garatzen dugu. Antropologiaren betaurrekoak ipini eta praktikaren landa lanean barneratuko gara: teorizazio ezberdinez elikatu, grabagailu berriak adituak elkarrizketatu, norbanakoekin buruturiko tertulia antolatutako grabatu, txipa sarturik bestela begiratuko dugu ingurunea.

Nik hitanoa hartu dut gaitzat, eta hemendik atera da ikerketa objektua: *Tolosaldeko gazteek (18-28 urte bitarte) hitanoari buruz duten pertzepzioa, diskurtsoa eta praktika*.

Libururen baten barren ezkutuetan, hitzaren jolaserako diruditen iritzi artikulo zenbaitetan edota hitzaldi sakonetan hitanoaren gaia agertu izan ohi da tarteka marteka. Sekulako potentzialitatea duela, gazte hizkerari pertsonalitate handiagoa eman diezaiokela... argi izpitan geratzen diren iritzi interesgarriak.

Airean geratzen diren izpi haietara gerturatu nahi dut, dokumentazioaren uretan sartu eta gazteen ahotsekin igeri eginez *landa lanari*<sup>1</sup> ekin. Metodo kualitatiboak erabili dit, hobekiago barneratuko naizela uste dudalako pertzepzio, diskurtso eta praktiketan. Gainera, metodo honen bitartez lagin bat hartu eta ondorio orokorragoetara iristeko aukeraz baliatuko gara, beren ideia eta pentsamendu batzuk lortzen saiatuz. Erabili ditugun teknikak behaketa parte hartzailea eta elkarrizketak<sup>2</sup> izan dira.

3 behaketa burutu ditut, oso interesgarriak eta informazio asko lortzeko balio izan didatenak:

—Tolosako taberna batean bertako eta inguruko herrietako zenbait gazteren hizkuntza ohiturak jaso ditut. Beren aisialdiko momentu horietan zein praktika darabilten behatzeko oso baliagarria.

—Bigarren behaketa Baliarrainen<sup>3</sup> herritarrek egiten duten herri afa-rian izan da. Bertan jaio edo beste herrietatik bertara bizitzera joandako herritarren arteko hitano praktikak apreziatzeko aukera izan dudalarik.

—Azken behaketa Tolosaldeko gaztetxoen futbol txapelketa batean izan da. Hantxe haurren hizkuntza ohiturak ikusi ditut, eta baita beren inguruko erreferente diren guraso, entrenatzaile eta antolatzailleena ere. Nahiz eta oraindik ez iritsi gazte garaira, garrantzitsua ikusi dut etorkizuneko gazte haien ohiturak beren bizi etapa hartan nolakoak diren sentitzea minimoki bederen.

**Zenbatuaz  
kategoria sozial  
batzuk sortzen  
ditugun bezala,  
ez zenbatuta eta  
estadistiketan ez  
azalduaz zenbait  
arlotan  
infrabalaratu  
egiten da.  
Hitanoa dugu  
zentzu honetan  
gutxietsi egiten  
den eremu bat.**

Elkarrizketen eremuan, gazteen hizkuntza ohituren inguruan lanean aritzen diren bi adituri egin dizkiet. Batetik Soziolinguista Klusterreko Maitane Ayerzari. Euskararen proiektu ezberdinetan parte hartu du, bi adibidez oso interesgarriak nire lanerako. Bata Tolosaldeko ikastetxeetan 12-16 urte bitarteko gazteekin burutzen ari diren ahozkotasanari buruzko lana, eta bestea berriz, Zumaia eta Azpeitian irakaskuntza mailan gazte-txoekin burutzen ari diren hitanoaren lanketa. Bestetik, hitanoaren inguruan hausnarketak oso garatuak dituen Kike Amonarrizekin izan naiz.

Gainontzeko elkarrizketak 18-28 urte bitarteko Tolosaldeko gazteei burutu dizkiet herri txiki eta handiak bereiztuz, generoa baloratuz eta adin tarteak kontuan izanik. Orotara 12 pertsona elkarrizketatu ditut banaka, binaka edota hiruak. Taldeka egitea egokia iruditu zait beraiek erosoago sentitu eta presioa hustutzeko.

Hau ez da ikerketa sakon bat, ez da euskara salbatzeko errezeta magikoa, baina etorri daitezkeen ikerketen akuilu izan nahi du. Irakurlea instante batez pentsakor jarri eta hausnarketan barneratu nahi du, galderak sorrarazi, kafe makineta parentesi une, zenbait afalosterako edota postbileretan konbertsazio gai izan nahi du.

## **1. ESTADISTIKETAN EGOTEAREN GARRANTZIA HITANOA EZ DESAGERTZEKO**

### **1.1 Estadistiketan egoteak inportantzia du hitanoa ez desagertzeko**

Hartu minutu bat eta saiatu honako galdera hauek erantzuten:

- Euskal Herriko zein lekutan erabiltzen da hitanoa?
- Zure herriko ehuneko zenbatek egiten dute hiketa?
- Ba al dakizu zenbat gaztek erabiltzen duten hika?
- Zein dira noka<sup>4</sup> eta tokaren<sup>5</sup> erabilpenak?

Gure jendartean gauzak sailkatu eta zenbatzeko ohitura dugu eta honela irudikatzen dugu gure errealitatearen irudia. Baina estadistikek gai baten errealitatea ikusteko ezezik, berau eraikitzeke ere balio dute. Zenbatuaz kategoria sozial batzuk sortzen ditugu eta gure bizitzaren parte bezala onartzen ditugu. Hala azaltzen digu Jacqueline Urla antropologoak:

“Tenemos que tener en cuenta que el contar, contabilizar, los hechos sociales, no simplemente revela la realidad, sino que crea ciertas formas de concebir

esta realidad. La construye. Las rutinas de contar, contribuyen a que algunas categorías sociales —los jóvenes, los euskaldunes, las mujeres casadas, los homosexuales— se vayan construyendo como entidades sociológicamente reconocidas”. (Urla, 1998:14)

Gaur egun jendarteak botere bat ematen die estatistikei. Euskararen baitan neurketa asko burutu ohi dira, eta hauen bidez euskal hiztunen komunitate baten autokontzientzia sortzen da, eta norberak hizkuntz bat hautatuta gure egunerokotasunerako, kategoria bat edo bestea elikatzen dugu. Baina inkestetan “*gehienetan gaztekeraz, batzuetan euskaraz*” aukera ezartzen bada, tarteko kategoria bat sortzen da. Hots, inkestean diseinuak eta ezartzen diren erantzun aukerek “errealitate” bat irudikatzen dute gure pentsakeran. Inkestak modu ezberdinetan egin daitezke, eta hauek ezkutuko helburuak ere izan ditzakete edota inkontzienteki ere eragina izan dezakete sortu ditzaketen zenbait aldagairen ondorioz. Bestetik, estadistiken bitartez kanpainak bideratzen dira, dirulaguntzak ematen dira eta baita legeak egin ere. Hor ditugu adibide bezala Nafarroako “ley del vascuence” zeina hiztunen arabera aplikatzen den, edota UEMA mankomunitatea zeinaren parte izan nahi duten herriek %80aren inguruko hiztun kopurua izan behar duten.

“Las ciencias cuantitativas son un arma potente en la lucha sobre los términos de la verdad. No podemos solamente usar estadísticas, tenemos que analizar cómo se emplean, cuándo, para qué.” (Urla, 1998:18)

Zenbatuaz kategoria sozial batzuk sortzen ditugun bezala, ez zenbatuta eta estadistiketan ez azalduaz zenbait arlo infrabalaratu egiten da. Hitanoa dugu zentzu honetan gutxietsi egiten den eremu bat. Honela, Tolosaldeako gazte askok uste dute noka ia desagertzeaz dagoen bezala, toka ere bide beretik joango dela. Estatistikoki ez dakigu non erabiltzen den, ez dakigu zenbatek erabiltzen duten, ez dakigu eskualde honetako gazteek erabiltzen ote duten; eta honek eragina du hika galbidean ikusteko. Sarritan agertzen dira euskararen erabilera datuak eta zonalde bakoitzeko euskalkiak neurtzea ere ez da malkarra... baina hitanoaren erabilpen eta zabalpenaz zenbat dakigu?

Gazte euskaldun askok gutxietsi egiten denaren sentsazioa dute, nahiz eta beraietako askok garrantzia eman eta bere funtzioa bilatzen dioten:

*hika despreziatu iten da, ta azkenen da guri hizkuntzak ematen digun aukera bat gertutasuna agertzeko. (Aiur<sup>6</sup>, Ibarako 28 urteko gaztea)*

---

**Sarritan agertzen  
dira euskararen  
erabilera datuak  
eta zonalde  
bakoitzeko  
euskalkiak  
neurtzea ere ez  
da malkarra...  
baina hitanoaren  
erabilpen eta  
zabalpenaz  
zenbat dakigu?**

**Estatistika eta  
gizarteak zein  
euskararen  
inguruko  
eragileek  
hitanoari  
garrantzi gutxi  
emateak eragina  
izan dezake  
hezkuntzan hikak  
duen presentzia  
urrian.**

## 1.2 Hezkuntzaren ardua hitanoaren egoeran

Estatistika eta gizarteak zein euskararen inguruko eragileek hitanoari garrantzi gutxi emateak eragina izan dezake hezkuntzan hikak duen presentzia urrian.

Oso kritiko dira hezkuntza eremuan hitanoari ematen zaion tratua-rekin, guztiek diote oso denbora gutxi bideratzen zaiola eta gainera garrantzi handirik eman gabe irakasten dela.

*ikastolan bakarrik ikasi deuna izan da, hor taulan agertzen danen hikako: nik hiri... bestela konbertsazio bat hikaz ematen ez digute erakutsi, ez due erakusten. Ez da ia ezer lantzen hika ikastolan, gubxietsi egiten da, serio hitz egiteko modu bat ez balitz izango bezala, baseik ya ez dao. Taulakin ez goaz ñoa, moduik hobena hitz eittea da. (Maider, Tolosa 23 urte)*

Oso ordu gutxitan hitanoa jorratzeaz gain, metodologiarekiko desadostasun handia adierazten dute aho batez, taulen formatoa ez da aproposa beraien ustez. Gainera hitanoa bezalako arlo bat irakasteko bestelako bideak jorratu beharko lirateke. Azken finean, euskara batuak hartzen du hezkuntzako zentralitate guztia: idazlanak euskara batuan egitea, EGA prestatzea... baina informaltasunaren eremua ez da batere lantzen. Irakasleen aldetik ere gehienek ez dute gogo berezirik ikusi berau lantzeko (agian beraiei ere arrotz zaielako).

Kike Amonarriz soziolinguista tolosarrari egindako elkarrizketan metodologiaren inguruko hausnarketa bat mahai gaineratzen digu. Bere ustez, hitanoa berreskuratzeko modua gramatikatasunetik eta zuzentasunetik kanpo burutu behar da kutsu komunikatibo eta ludiko batez lagunduaz bere irakaspena. Barre egiteko, haserretzeko, ligatzeko... baliotasuna duela erakusteari garrantzia ematen dio. Baina honetarako metodologia berri bat asmatzea beharrezkotzat ikusten du. Haseran bospasei esaldirekin hasi, oinarri bat osatu eta ostera zazpigarren esaldia nola etortzen den sentitu. Klase ordutan zerbait landu beharra deritzo, baina ahal bada modu informalak irudikatuz (antzerkitxoak hitanoa erabiliz...), eta hor jartzen du bere jopuntua: aisialdiko terrenoa hitanoa lantzeko aproposa deritzo (kirol esparrua, aisialdi taldeak...).

Maila praktikora gerturatuz Soziolinguista Klusterreko kide den Maitane Ayerzak balorazio oso positiboa egiten du hitanoaren inguruan Zumaia eta Azpeitian hezkuntza eremuan gaztetxoekin burutzen ari diren plangintzaz. Bertan hitanoa modu ludiko batean erabiltzeko programa informatikoak, marrazki bizidunak, aisia eta ondo pasatzearekin erlazionatutako ekimen ezberdinak garatzen dituzte.

## 2. LANDA HERRIXKA/ KALE HERRIA: HITANOAREN PRAKTIKA EZBERDINEN EREMUAK

I

Zumaia eta Azpeitia ez daude Tolosaldean, nahiz eta gertu izan bestelako errealitate bat bizi dute hizkuntza ohiturei dagokionean.

Tolosaldea<sup>7</sup> landa eremuko herri txikiak eta kale giroa duten herri handixeagoek osatzen dute. Esan dezakegu herri txikietan hitanoaren transmisioa bi belaunaldien artean gauzatu dela eta bertan hizkera modu hau nahiko gertukoa sentitzen dutela. Tolosa, Ibarra eta Villabona bezalako herri handixeagoetan aldiz ez da transmisio hori burutu. Urte batzuetan euskararen presentzia oso baxua izan zen, eta azken urte hauetan hartu du euskarak hauspokada. Oraingo euskal hiztun diren belaunaldi gazte batzuen ahotan entzuten da hika. Hala ere, hitanoaren inguruan pertzepzio ezberdinak sortzen dira. Herri txikietakoek diote askotan Tolosara jeistean eta berau erabiltzean “kaxero” irudia sortzen dela berengan, honek bi modutako erreakzioak sortzen dituelarik. Batzuetan, lotsak hizkera modu hori ezkutatzera bideratzen du edota alderantzizko jarrera, bereizgarri bat harrotasunerako ezaugarri dena.

*Hikak erlazio asko dauke baserri giroakin, horreatik zu hikaz hasten zeanen... ba gu haste gea ta 80 urteko behiak paseatzen ibiltzean atton bat bezala, eta ez dauke zertan hola izan beharrik. Horrekin erlazionatzen deulako sin mas... (Maidier, 23 urteko tolosarra)*

Baina ikuspuntu hau ez da erabatekoa, erabiltzaile diren herri handietako gazteek ez dute sentipen hori, eta honek beren inguru marian ibiltzen direnengan eragina du:

*Haseran, ume garaitan ta... hitanoa baserri giroarekin erlazionatzen nun... gero konturatzen zea zabalpen handiagoa daukala. (Maritxu. 24 urte. Tolosa)*

Baina herri handiagotako transmisioa jaso ez duten gazte erabiltzaile hauek herri txikietako gazteekin hezkuntza eremuan izandako elkarrekintzan izan dute praktikoki lehen harremana hitanoarekin. Haserako ezagupen eta harridura moduko hori itsaskor bihurtu eta batzuen hizkera esperimenzioan bilakatzen da:

*Herri txikitakoak institutora etorri zianen, nik hika enekin ezerrez, bua... eta ulertzeko de zailtasun asko. Baina gero hasten zea ta... entzun ta entzun ta azkenen joera ite zaizu ba zeoze iteko. (Aitzol. 19 urte. Tolosa)*

*Belauntzakok DBH-a Ibarra etorri hittuanen, haik tope iteie hika ta nik uste ordun hasi giñala pixkat hika erabiltzen, haikin ikasi genun. (Iñaki. 28 urte. Ibarra)*

**Herri txikietakoek diote askotan Tolosara jeistean eta berau erabiltzean “kaxero” irudia sortzen dela berengan, honek bi modutako erreakzioak sortzen dituelarik. Batzuetan, lotsak hizkera modu hori ezkutatzera bideratzen du edota alderantzizko jarrera, bereizgarri bat harrotasunerako ezaugarri dena.**

Herri txikitakoek hori sentitzen dute eta harrotasun moduko batek hartzen ditu beren hizketa besteei kutsatu dietela konturatzean:

*Ni futbolen hasi nintzen Tolosan 12 urte eo nittula, ta ordun Tolosako gaztek etzuen bate hitz eitten, baino gu jun giñenen gustatu eo, ta geora pixkoat erabiltzen hasi zien. (Ekhi. 19 urte. Berastegi)*

Lehen harreman honek ez du esan nahi ezagutza garatzen dela, lehendabiziko esperimentazio praktikoa bilakatzen da, gerturapen moduko bat beren hizkerara. Eta hizkeraren jolas honek beren ezberdintasunak ezereztatu eta berdintzen laguntzen du.

### 3. "TXEPETX"-EN TEORIA SOZIOLINGUISTIKOAREN APLIKAZIOA HITANOARI

Jose Maria Sanchez Carrion "Txepetx"-ek *Un futuro para nuestro pasado*<sup>8</sup> liburuan formulatu zuen teoria soziolinguistikoa erabiliko dugu gure lanaren zati baterako.

"Txepetx"-en teoria soziolinguistikoa hitanoari aplikatzen badiogu, konturatuko gara bere egoera kaxkarraz.

**Herri txikietako<sup>9</sup> gazteak:** mutilek txikitatik A ibilbide naturala burutzen dute, zeinak etxean eta kalean erabileran barneratzen diren. Bide honek hitanoaren aukerak ezagutu eta esperimentatzera darama, eta honek guztiak hikarekiko jarrera baikorra sortarazten dio, bere jarduera eta pertsonalitateari atxikita agertzen baitzaio. Neska gehienek aldiz ez dute umetatik hitanoaren A ibilbidea egiten eta gero nerabezaro eta gutxi batzuk gazte denboratan hasten dira bide hau jorratzen (hemen nokak duen gutxiespenak eragina du). Ostera euskararekin gertatzen den bezala hitanoan ia ez da B ibilbide kulturala inoiz egiten, hots motibazioak eragindako hitano ikasketa edo ezagutzan ez da gehiago sakondu edo hobetzen. Gazte gehienek gainera ez dute askotan egoki erabiltzen, noka ez dakite, zuzenki idazteko arazoak dituzte...

**Herri handietako<sup>10</sup> gazteak:** kontuan izanik gazte gehienek ez dutela ia inoiz hitanoa erabiltzen eta bere ezagupena zerotik gertuago dagoenez, esan daiteke 0 multzoan kokatutako hitanoa ez dakiten pertsonak direla: zuka mintzo diren euskaldunak edota erdaldunak. Hala ere, gehiengo horretako gazte batzuk bere gazte garaitan hitanoaren inguruan esperimentatzen dute eta pixkanaka beren egunerokotasuneko beste erregistro batean bilakatzen da. Askok ez dute transmisiorik izan etxean, batzuk gurasoak erdaldunak izango dituzte, baina kalean hitanoa ezagutu eta erabiltzen hasten dira, honela A ibilbideari hasera emango

diotelarik. Hementxe emango dituzte pausu batzuk poliki eta astiro beti ere A ibilbide horren mugen barnean, B ibilbidera salto egin gabe. Hau mutilen kasua izango da eta nesken multzo ia osoa hika ez dakiten 0 multzoan egongo lirateke.

B ibilbidea egiteko zailtasun handiak daude. Lehen esan bezala irakaskuntzan ez delako lantzen hitanoa, komunikabideetan zuka da agintari. Nahiz eta Goenkale telesaila bezalako salbuespenak egon, non hitano zuzen eta formala irakasteko bidea lantzen duten. Hitanoa bizirik mantendu eta bere ezagutza handitzeko B ibilbidea ibiltzeko erraztasunak jarri beharko lirateke.

*Nola %10 bakarrik dakiun, nik uste askotan lotsa ematen digula eta zukara pasatzen geala ordun. Hi ze in behar dek... eta 4 esaldi hoitatik atera ta etzekeu rekursoik. Oain pentsatzen jarrita, etzekiat adibidez hika bazeok erabiltzea ahal-keran? Etzekiu. Konbertsazio baten eon ta ataskatzea baño gauza okerragoik etzeok. (Aiar. 28 urte. Ibarra)*

*Nik mutil batei hitz egiten badiot k-kin, baino nik mutil bati nitaz hitz egin behar badiot zer d k-kin? Ez dakit, eske nola ez diguten erakutsi...esateko aspertuta nagola mutil bati ze esan behar diot neska bezala edo mutil bezala? (Maidier. 23 urte. Tolosa)*

Gazte askok gustora jakingo luke hitanoa, baina transmisioa izan ez duenez eta hezkuntzan jaramonik egin ez zaionez, ez du biderik ikusten berau lantzeko. (Hala ere, honek ez du esan nahi ikastaro partikularrak egongo balira berau ikasteko eskaera handiegirik egongo litzatekeenik).

*Guri kulpabilizatzen digute gaizki hitz egiten dugulako baño ez digute erakutsi. Haseran pixkat libertadea utzi, eta hasteko, hasteko... hanka sartukou baño bueno, pixkanaka pixkanaka soltura hartzen dunen eta konfiantza hartzeunen, benetan gogoia baldin bauke hobetzen jungoa seguro. Gauza guztitan bezala...*

*Gu askotan parranda ateratzen gea ta pixkat harrotzen geanen esate deu: "benga goazen hika hitz egitea denbora guztia". Haste gea ta ez daukeu idearik, ta beida saiatze geala, eh? Ta askotan in deu, eh? Hau egite deu nahi deulako ikasi, nahi deulako jakin. Euskaraz badakigu baino falta zaigu zerbaite... (Maidier. 23 urte. Tolosa)*

Hitanoa erabili edo gertutik ezagutzen dutenek oso baliagarri eta funtzional ikusten dute. Beraien ustez, hitanoa oso erregistro egokia da kolokialtasuneko zenbait eremutarako, edota adierazkortasuna lortzeko

***Hitanoa erabili edo gertutik ezagutzen dutenek oso baliagarri eta funtzional ikusten dute. Beraien ustez, hitanoa oso erregistro egokia da kolokialtasuneko zenbait eremutarako, edota adierazkortasuna lortzeko hainbat momentutarako.***

hainbat momentutarako. Bailara honetako zenbait gazteri hitanoak euskara erabiliz era informalean hitz egiteko modua eskaintzen die; batua askotan oso formal egiten baitzaie, askotan artifizialtasun eta hoztasunarekin lotzen dutelarik. Batua kortesiazko moduarekin harremantzen dute hainbatetan eta orduan hitanoak bete dezake batuak umezurtz uzten duen esparru hau.

*Ni hika duela gutxi erabiltzen hasi naiz ta jatortasuna... rollo ona transmititzen du. (Aitzol. 19 urte. Tolosa)*

Erabiltzaile askorentzat hitanoa lagunarteko hizkera bat da eta berearekin gertutasuna lortzen dute, bidezidorretik konfiantza lortzeko bizkortasuna:

*Kanpoa jute haiz bakaziota ta, euskaldun bat ikusi ta igual hika hitz eiteiok ta gertutasuna kontsegitzek, konfiantza. Modu informal bat da. (Iñaki. 28 urte. Ibarra)*

Nahiz eta euskara batuaren sorreraren eztabaidan ez parte hartu, positibo ikustetik haratago zenbait hutsune bete dituen beharrezko pauso bezala baloratzen dute bere jaiotza. Hala ere, ibilaldi hori bultzatzeaz gain kezka bat ere agertzen dute askok: batuari eman zaion “gehiegizko” bultzadak ez ote dituen bestelako euskalkiak zenbaitetan zapaldu.

#### **4. HITANOAREN BAITAN ERATURIKO ARAUAK EZBAIAN**

##### **I**

Hizkuntza batean aldaketak akordatu eta diseinaturik burutu daitezke edo jendarteak berak erabileraren poderioz bultzatu ditzake. Brown eta Gilman ikertzaileek zenbait hizkuntza aztertu zituzten (Ingelesa, Frantzea, Italiara, Espainiera eta Alemana) eta besteak beste hizkuntzek tratamendu sistema ezberdinak sortzen zituztela ondorioztatu zuten. Espainieran adibidez VOS enperadoreari soilik zuzentzeko erabiltzen zen (oso errespetuzkoa) eta gerora bestelako botere gune ezberdinetara zabaldu zen familia instituzioraino iritsi arte.

Erdi Arotik aurrera hizkuntzaren baitan moral bat sortzen da, gizartean eraturiko hierarkia eta estatus mailak indartzen dituen beste-enganetik bereiztuz eta boterea erakutsiz.

Baina denboraren poderioz boterearen semantika indarra galduz eta elkartasunaren semantikak irabaziko du espazioa.

Bestetik, gizarte harremanetan kortesiazko forma baztertuz joango dira lagunartekoa erabiltzeko.

Euskararen kasuan ere, berorikak zuen ospetik gaurko gazteek ez ezagutzerainoko ibilbidea burutu du eta jada hizkuntzaren museotako parte bilakatu da. Inongo bereizketarik egin gabe zukak komunikatzen gaitu. Baina zuka al da lagunarteko forma?

Berorikaren aldamenean jarriz zuka dugu lagunarteko komunikazio erregistro baina hitanoarekin alderatuta hitanoa izango genuke.

Hikaren barrenak ikertuta ikus daiteke oraindik beste hizkuntzek garai batean zuten botere semantika izozturik geratu dela. Ohitura edo arau batzuk dute indarra maila idealean: belaunaldi gaztegoek ez die helduegoei hika egingo nahiz eta haiek aukera izan gazteei hala egiteko. Genero berdinekoek, alderdi politiko bateko lagunak edota mendiak batzen dituenak hitanoak gerturatuko ditu eta etxe barrenean askok ezagutu dugu guraso edota helduei hika erabiltzea errespetu faltarekin lotutako lotsa gabekeriakin jostea, debekua haustea.

Baina hau ez da betikoa. Begoña Echeverria antropologoak euskararen lehenengo testigu idatzia ikertu zuen, sinestunak erakarri nahian 1571 urtean Joanes Leizarragak euskaraz idatzirikoa “Testamentu berria”.

Bertan emazte senarrak, guraso eta alaba semeak inongo “araurik” gabe erabiltzen zuten hitanoa. Beti ikasi izan dugu heldu eta “boteredun”-ekin hika erabiltzea eta errespetu falta gauza bera direla, baina ia duela V mendetako testu honek hankaz gora jartzen ditu betikoak:

“Eta jainco Eternalac erran cioen emazteari, cergatic eguin **dun** hori... eta emazteac ihardessi cuen, sugueac enganatu **niauc**, eta jan **diat** handic”.

Hemen irakurri daitekeen bezala, Jainkoa eta Eva emakumearen el-karrizketa hika eginez burutzen da.

Hizkuntza bat ez da zerbait estatikoa. Hizkuntza bat bizia da, alda-korra, etengabe mugimenduan dagoena. Hizkuntza aldatzeaz gain, hura erabiltzen duen jendartea ere aldatuz doa gelditu gabe, bere baitako arau eta harremanak negoziatuz ari dira une ezberdinetan. Hau hitanoaren inguruan dauden arau sozialei aplikagarria izango litzateke eta oraingo egoeraren ispilu.

Baina Tolosaldeako gazteek ez dituzte arau horiek bere egiten eta paradigma aldaketa gauzatzeko subjektu aktiboak direla esan daiteke, uneoro ari baitira beren elkarrekintzan terreno horiek konkistatzen. Agian herri txikietan arau horiek errespetatzeko joera handiagoa dago, txikitatik hartara sozializatu dituztelako transmisioaren bitartez, nahiz eta beren gaur egungo hausnarketan ez aurkitu zentzu handirik ezberdintze honi. Tolosa bezalako herrietan aldiz, etxean transmisioa jaso ez duten gazteek ez die jaramonik egiten arau horiei eta haien aurka egiten

---

***Beti ikasi izan  
dugu heldu eta  
“boteredun”-ekin  
hika erabiltzea  
eta errespetu  
falta gauza bera  
direla, baina ia  
duela V  
mendetako testu  
honek hankaz  
gora jartzen ditu  
betikoak:***

***“Eta jainco  
Eternalac erran  
cioen emazteari,  
cergatic eguin  
dun hori... eta  
emazteac  
ihardessi cuen,  
sugueac  
enganatu niauc,  
eta jan diat  
handic”.***

**Osterako  
testuetan  
(katolikoetan  
adibidez) jada  
botere hierarkiak  
argi agertzen  
ziren. Badirudi  
garai hauetan  
berriro ere  
berdintasunezko  
hitano bat  
sortzen ari dela  
gazteen  
esparruan:**

dute praktikan hika erabiltzean. Esan beharra dago herri hauetan guraso batzuk beren semeak berari hike egitea ere animatzen dituztela.

*Beste gizarte baten gaude eta arau hoik ya ez daukea zentzurik. Berorrika desagertu da. Nere aitak onartzen du bere semeak hika hitz eitea. Hau jada aldatu da, nik arauak ez ditut nahi. Gaur egun ez daukea inongo indarrik... nobiotan bai eta gero bihar ezkontzen bagea ya ez... ze broma da hoi?*

*Hikaz hitz egin nahi dun norbaitek pentsatu behar baldin bau, zeinen aurren zauden... neska edo mutila... nola hitz ein behar det... gero pentsatu ni baño zaharragoa da... normala ez dala hitz eiten! Hoi dena pentsatu behar baldin bazu? Benga! Zuka hasten naiz tio! (Maider. 23 urte. Tolosa)*

Eta hemen belaunaldien arteko tentsio bat sortzen da. Belaunaldi helduagoentzat betiko arau horiek errespetatu beharrekoak dira, eta oraingo gazte hauek beste modu batera ikusten dituzte harremanak.

*Nik aitai ta amai hika hitz eitteit bakitelako ez zaiela inporta, baño pertsona batek esaten bait beai errespetoa faltatzeiotela hikaz hitz eiten, ez diot hitz eiten. Azkenen, nei iruitzen zait ez daukela egon beharri lege generalik...*

*Arau general hoikin ez nao ados. Netzako status hobea dauken batek, batek kriston diru pille daukelako, kriston kotxea... ez da ni baño gehio, ni baño diru gehio eukikou baño... garai bateko klase bereizketa ez dao. Nik zer dakit, kalek garbitzen ibiltzean bat ta enpresako jefen bat, igual bik jungoie kafea hartzea ta bat ez da bestea baño gehio izango...". (Iñigo. Berrobi. 19 urte)*

Lehen testu euskaratuan ere, 1571an itzulitako protestantismoaren "testamentu berria"-an arau horiek gabe agertzen dira egunerokotasunezko hizketaldiak: ama-semea, jainkoa-emakumea... hitanoa erabiliz aritzen dira nahiz eta osterako testuetan (katolikoetan adibidez) jada botere hierarkiak argi agertzen ziren. Badirudi garai hauetan berriro ere berdintasunezko hitano bat sortzen ari dela gazteen esparruan:

*65 urteko heldu bati de zuka ezin ziot hitz ein. Soziedadeko hauri etzaiak ateatzen zuka itea, dena hika iteie ta nik ebai. (Iñaki, 23 urte. Ibarra)*

*...lehengo apaizak ez pentsatu hika hitz eittea, baño oaingo apaizak beak eskatzeu beai hika hitz eitteko. Pertsonan araberakoa da... gizartea kanbiatuan bezala, hika de kanbiatu ingoa, lehen meikuk eta ikuste ittuen ikearri errespetuzko gauzek ta ordun, beste modu batea hitz eitte geniela. Oain berriz, dena pixka bat berdindu eo inda... lehen beorrika hitz eitte zan, ta oain desagertu inda ta hoi positiboa da. (Ekhi. 19 urte. Berastegi)*

Zumaia eta Azpeitian soziolinguista klusterreko kideek hizkuntza-  
ren baitan orain arte indarrean egondako arauekin irakasten diete hita-  
noa bertako haurrei, baina zalantza handiak dituztenez gai honen in-  
guruan, bestelako ikuspegi eta joerei ere atea irekitzen diete. Honek  
eztabaidarako behar bat suposatzen du: Orain hitanoa irakatsi behar  
bada, zein balorerekin irakatsi behar da?

## 5. NOKA GAUR EGUNGO GAZTEEN PRAKTIKATIK

### I

Gaur egun, noka galbidean dagoenaren beldurra nahiko orokortua dago  
hizkuntzalarien artean eta herritarrek ere sentipen hori dute. Xabier Azkuek  
Zumaian egin zuen ikerketaren ondorioa orokortu daitekeela uste dut,  
hots, nesken artean ia nokarik ez dela egiten eta mutilak nahiz eta askotan  
zukaz zuzendu, hika erabiltzen badute toka eginez egiten dutela.

Historian errapatuz, protestanteen testuetan noka forma ohituraz  
erabiltzen zen emakumezkoengana zuzentzean, hau da, nahiko arrunta  
zen berau erabiltzea. Baina testu katolikoetan ere ikertu zuen Begoña  
Echeverriak eta ezberdintasun handiak apreziatu zituen: testu katoliko-  
etan zu forma erabiltzen da orokorrean eta hitanoa aldiz, zigortzeko edo  
errieta egiteko erabiltzen da, mespretxua edo destaina adierazteko (adi-  
bidez, Axularren Gero lanean —1643 urtea— arima zigortzeko noka era-  
biltzen da). Honela, konnotazio negatiboa ematen zaio hikari orokorrean  
baina nokari modu ageriagoan. Izan ere toka eguneroko gizonezkoen  
elkarrizketetan agertzen baita emakumeen artean noka ez bezala.

“La mayoría de la población católica, como consecuencia de ello, llegaría a  
considerar inapropiado el uso de noka, incluso en las circunstancias más pro-  
picias”. (Echeverria)

Hitanoak neska eta mutilak bereizten ditu, baina betidanik hala  
izan al da? Edo beste interes batzuen ondorioz bultzatu zen?

...igual sexuk bereizteko ingo zan ta diferente tratatzeko emakumek ta gizo-  
nak... (Iñaki. 23 urte. Ibarra)

Hitanoa salbuespen da euskararen barnean, generoa bereizten baitu  
bere baitan, noka eta toka. Noka jada azkenetan aurkitzen da, desager-  
tzeko zorian. Ez betiko hikataileek, ez herri txiki zein handietakoek,  
ez mutilek zein neskek ez dakite noka erabiltzen. Erdi Arotik honainoko  
hitanoaren ibilbidean apreziatu ahal izan dugu zein modu eta helburu-  
rekin erabili izan ohi den hitanoa. Nokari zentzu negatiboa ematen zaio  
sorginekin lotuaz etabar. Gaur egun zentzu negatibo horrek seinalea

---

***Hitanoa  
salbuespen da  
euskararen  
barnean, generoa  
bereizten baitu  
bere baitan, noka  
eta toka. Noka  
jada azkenetan  
aurkitzen da,  
desagertzeko  
zorian.***

**Erabiltzen duten  
gutxi horietako  
askok toka  
erabiltzen du.**

utzi duela dirudi eta hau izan daiteke arrazoi bat nokaren egoera halakoa izateko. Neska askok hika “basto” eta zakarra delakoaren pertzepzioa dute, mespretxua agertzen dunaren sentsazioa dute.

...guk ez deu itten, ezteulako entzun. Zeangatiken... hika zakarra bezala ikustea ta papera izan da oain arte, ta bueno segitzeu... neskak izan beharra daukela fiñe. (Mirentxu. 19 urte. Berastegi)

Eta nokaren transmisioa etxeetan eta eskoletan eman ez denez kalean ez dauka presentziarik, nahiz eta emakume heldu solte batzuk soilik entzuten diren hiketan betiko lagunen artean, espazio mugatuetan. Hala ere, neska guztiek ez dute pertzepzio berbera noka eta hikaren inguruan, bi mutur sortzen direlarik honen baitan:

—Batzuentzat itsusia, zakarra eta zentzu negatiboa du.

—Besteentzat polita, gustagarria eta gustatuko litzazieke jakitea.

...oso politte da, bere amak erabiltzen dunen bestei hitz eitteko, nei pille bat gustatzen zait, ta zakarra ez du ematen. (Edurne. 19 urte. Berastegi)

Lehen esan bezala, herri handietako neskek ez dute hitanoa erabiltzeko gaitasunik baina herri txikietan nahiz eta neskek noka ez praktikatatu ez du esan nahi hitanoa arrotz zaienik, batzuk mutilekin erabiltzen dute eta beren artean ere tarteka hika egiten dute.

*Guk gure kuadrilan, batzugin behintzat, hika hitz eitten det... oain! neskakin de mutilena, mutilena hobeto dakiu, ta generalen nahiz ta neskakin aittu mutilena erabiltzen deu...sin mas, ohitture ohi daukeu. Berez neskana jakingo bagenu, ibiliko genuke, baño...* (Edurne. 19 urte. Berastegi)

*Berrobin neska gaztek hika itteu ta erabiltzen due mutilen forman, mutilek hitz eiten duten bezala.* (Iñigo. 19 urte. Berrobi)

Nesken artean zabaltzen ari den hitano praktika honek aztoratuko ditu euskararen inguruko bazterrak.

*Nei mutilei bezala hitz eiten badiate ez zait fallo grabea iruitzen. Erabiltzen dutenak enteratu daitezke baino beste asko ez.* (Maider. 23 urte. Tolosa)

Erabiltzen duten gutxi horietako askok toka erabiltzen du, agian gazteek generoen artean ezberdintasun gutxiago ikusten dute eta beraienzat ez hain larria ez ezberdintze hori. Kike Amonarrizek hausnarketeta bat zabaltzen digu hizkuntzak eta generoaren inguruan:

*alabei eta ikusten diet, ei txaball, tio... esaten dute eta berdin da mutila edo neska izan. Tio eta txabal. Ordun erderaz tio eta txabal esaten badute, zergaitik bereizten dute hitanoan? Eta hor egon daitteke joera sozial bat batere ajola ez zaiena., Hipotesi bezala: posible degu gaur egun sozialki mutila eta nesken hitanoa bereiztuta berreskuratzea? Hor sortzen zaizkigu arazoak: wazenmank esan behar dugu eta zer nahi dunk esan behar dugu?*

Hala ere gazteen artean 2 ikuspegi agertzen dira eztabaida honen baitan:

—Batzuk hitanoan generoa bereiztean ez dute ezer txarrrik topatzen, berdintasunari ez dio eragiten eta hizkuntzaren aberastasuna da.

*Nik ez nuke aldatuko inolaz ere, aberastasun handitzat baloratzen dut eta ezberdintasun hori atsegin dut, hola zuzentzea pertsonifikatuagoa iruditzen zait.  
(Maritxu. 23 urte. Tolosa)*

—Beste batzuk ordea, hitanoarentzat oztopo dela diote, agian aitzinako ezberdintasun horretan zentzu gehiago eduki zezakeen baina gaur egun ez dute uste positiboa denik.

*...adaptatu in behar da garaieta, denok adaptatu behar deu, pertsonak, hizkuntzak, ohiturak... eta dena, eta honekin batera neska/mutil bereizketa ere harremanduta dao, oztopo bat da” Hikak sexua bereizteik, zaharkituta zeok, ez zeok garai berrita egokituta, agian gure buruari galdetzeko gaia da, XXI. menden gaude ta. (Aiur. 28 urte. Ibarra)*

Hausnarketarako 3 galdera luzatu nahiko nituzke mahai gainera, tertuliarako egokiak direnak:

—Noka edo toka hitanoaren forma bakar eta estandarrean bilakatzea soluzio bat izan al daiteke hika bultzatzeko?

—Forma bakar bat sortzeak aberastasun linguistikoari kalte egingo al lioke?

—Zerk du prioritatea? Zein da helburua?

Maila teorikoan eztabaida bizia bihurtu daiteke, gaia nahiko konplikatu delako. Baina maila idealari begiratzen diogun bitartean maila erreala ahanzten dugu. Eta bertako errealitatea honakoa da: egunero-kotasuneko egoera praktikokoan noka desagertzen ari da eta neska batzuk beraien artean toka erabiltzen hasi dira. Errealitatea ezkutatu baino hobeto litzateke bertan barneratzea.

**Irakaskuntzatik  
kanpo prestigioa  
eta  
erabilgarritasuna  
erakusteko  
bestelako  
eremuetan ere  
hitanoa landu  
beharko  
litzatekeela diote  
gazteek.**

## 6. AISIALDIA: HITANOA IRAKASTEKO ESPAZIOAK

Euskararen biziraupenerako hezkuntzak garrantzi handia du, baina ez da bere osasunean eragiten duen faktore bakarra. Aisialdia ere geroz eta garrantzi nabarmenagoa hartzen ari da hizkuntzen ikaste eta erabilerari dagokionez. Bertan jorratuko dituzte hizkerak informalak, transmisioa neurri handi batean aisialdi espazio ezberdinetan burutzen da (lagunak, telebista, familia, kirola, tabernak...) eta motibazioa, gaitasuna eta erabilera sustatzeko leku paregabea dira.

Lehen aipatu dugun moduan hezkuntzan gehiago landu beharko litzateke hitanoa, baina taulen metodoa baztertu eta bestelakoetan bilatuz. Baina irakaskuntzatik kanpo prestigioa eta erabilgarritasuna erakusteko bestelako eremuetan ere hitanoa landu beharko litzatekeela diote gazteek.

Goenkale adibidetzat dute non hitanoa nahiko era normalizatuan erabiltzen den (nahiz eta forma hori beraientzat nahiko arrotza den). Telebistaz gain irratia ere espazio egokitzat ikusten dute hitanoa gazteei gerturatzeko, Gaztea bezalako kateak adibidez. Baina hemen arazo bat dago, izan ere, publikoari zuzentzean genero bereizketaz ezin da egin. Agian elkarrizketak izan daitezke eremu bat.

*Gaztea irratian hika gehio erabili beharko lukea, hika jartzea gaizki iruitzen bazaie, Jon Gotzon jartzea ze iruittu behar zaie ordun? (Ekhi. 19 urte. Berastegi)*

Hala ere, komunikabide nazionaletan baino tokiko komunikabideetan jartzen dute beraien ikusmira. Batua terreno asko jaten ari dela eta eremu horiek egokiak direla uste dute hitanoa eta euskalkien presentzia modu naturalagoan erabiltzeko, ez dena, baina bai zerbait (iritzi artikuluetan adibidez).

Aisialdi eta kirol eremuan egin nuen behaketa haurren futbol txapelketa batean. Bertan, entrenatzailea gaztelaraz zuzentzen zitzairen euskaraz zekiten gazteei, eta kapitain lana egiten zuen atezaina ere modu berberean imitatuz agintzen zien jokalaria lagunei. Arbitroek ere gaztelera zuten lanabes eta haurrek gaztelaraz eskatzen zuten penaltia.

Elkarrizketa askotan komentatu dute kirol eremua egokia dela hitanoa landu eta gazteen artean zabaltzeko. Baina entrenatzaileek ez dutenez jakingo, ikastaroak antolatu eta hitanoaren jakintza egiaztatzen duten EGA moduko tituluak eskatu dituenik ere bada.

*Nola transmititzen dek hoi eskolan? Eongoie formulak, baño taulak eta mierdak. Aisialdin landu beharra dao, futbolakin flipatzen duen umei jarri taula bat...*

*baloiak bakarrik ikusten dittun ume bati jarri taulak... hor komeniko huke  
adibidez entrenadorek ittea hika. (Aiur. 28 urte. Ibarra)*

Mintzapraktika bezalako metodologia egokia da hitanoa ikasi eta garatzeko, aisialdiko taldeek ere joku eta modu ezberdinetan landu ahalko lukete hitanoa gazteei transmitituz eta beste zenbait ideia ere badaude:

*Udaleku bat agian aproposagoa: surf... jarduera ezberdinekin gazteentzako  
aproposagoa da, erakargarrigoa. Bide bat hika hitz egiteko, baino ez helburua.  
(Aitzol. 19 urte. Tolosa)*

Ikasteko aukera ezberdinak izateak garrantzia handia dute beren promoziorako, baina oraingo jendartean bizi garen abiaduraz ez dakigu prioritateen zerrendan zein postutan egongo litzatekeen hitanoa.

*Oaintxe bertan nahiago det inglesa ikasi hika perfekzionatu baino, halere  
ikastarok eta holako gauzak (barnetegiak...) oso ondo zeudek hika bultzatzeko.  
(Aiur. 28 urte. Ibarra)*

Hika promozionatu beharraz mintzo dira baina honetarako beren iritzi eta ikuspuntuak biltzea beharrezkoa da, beraiek ere diseiunu eta plangintzetan protagonismoa hartuaz.

*Hika ez da promozinatu behar promozionatzeagatik, segun nola ittean kontrako  
helburua lortuko dulako. Adibidez telebistako anuntzio batekin ez du bere  
helburua lortuko. Baño hika erabiliz bera bultzatzeko bestelako moduk eongo  
dia, hoi inportantea da, nola ittean. (Aitzol. 19 urte. Tolosa)*

## **7. HITANOAK EUSKARAREN ERABILPENEAN ERAGIN DEZAKE**

### **I**

Hotz egiten du, baina mendigoizale arropa eta buffez etortzen dira prestatuta. Dozena bat lagun daude, mahaiak elkartu eta peten ufaden giroan solasean. Futbola da epizentroa eta gaztelera haren jirabiran ibiltzeko tresna. Ahotsa altxatzeak arrazoi indartzen duela dirudi, eskuak mugitzeak azpimarratu egiten du diskurtsoa, besteen babesa eskatzen dute begiradek... arrotz zaidan eztabaida sakon honetan. Baina harrigarria badirudi ere, gazteleratik hikara ibiltzen dira tarteka saltoka, nahiz eta garbi esan beharra dagoen gaztelera saltoak luzeagoak direla. Informaltasunaren erregistroa eskaintzen die hitanoak, "porkulo hartzea junai!, lanbaten parranda ingo diagu? Animatuai!". Zuka agian momentu hauetarako formalegia egiten zaie eta orduan gaztelera jotzen dute

**Gazteek ez dute  
hizkuntzaren  
aberastasun  
kulturala  
mantentzeko  
hitanoa  
erabiltzen, baizik  
eta hitanoak  
euskaraz aritzeko  
erregistro  
informal eta  
kolokial funtzioa  
betetzen duelako.**

Tolosako taberna batean egin nuen behaketa da, modu enpiriko batean gazteek hitanoari aurkitzen dioten erabileraren irudikapen bat da. Erabiltzaile direnen ustetan euskaraz leku ezberdinetan adierazteko modu diferente bat da hitanoa eta horretarako euskarak duen tresna garrantzitsutzat dute.

Igual da hika euskeran barruko kaleko hizkera, erderak dauken modu informal hoi betetzen duna. Guk modu informalen hitz eiteko hika daukeu, baño hika ez bagenu eukiko igual erderara joko genun “ze esatek!” beharren “ique dices!” esango nun, ez esateagatik “zer moduz zaude?”. Agian gazte askok horreatik hitz eitteute erdera. Euskerak ez dauke lagunarteko hizkera hoi, ta igual hika da hoi... guk euskalkia daukeu, baño normala Donostin adibidez ez daukeala, ba zaila da euskeraz hitz eitea. Hikari garrantzia ikusten diot alde hontatik ta hutsune hoik betetzeko baliagarria izatea dauke. ( Iñigo. 19 urte. Berrobi)

Ezin uka euskara-identitatea-nazioa akuiluak eragina izan duela euskararen biziraupenean, baina gaur egun fosilizaturik geratzen ari dela dirudi ikuspuntu honek. Euskara gure erlijio moduan aldarrikatzea eragina izan dezake gazteen ideologian, kontzeptu teorikoetan. Baina askotan praktika bestelakoa da, sekularizatua dagoen belaunaldi berri honentzat etorkizun laburra izan dezake bide honek, nahiz eta eragina izan oraindik. Eta hitanoaren kasuan aldiz, ikuspuntu honek ez duela balio dirudi: “hitanoa egin behar degu euskararen parte delako eta bestela galdu egingo delako”.

Gazteek ez dute hizkuntzaren aberastasun kulturala mantentzeko hitanoa erabiltzen, baizik eta hitanoak euskaraz aritzeko erregistro informal eta kolokial funtzioa betetzen duelako.

Ni oain dela urte gutxi hasi naizela hika hitz eitten, oain kontuatze naiz nik hika erabiltzen detela funtzio bat bilatzen diotelako, informaltasun toke hoi... ni ez naiz hasi hika hitz eitten galdu ingoalako. (Aitzol. 19 urte. Tolosa)

## ONDORIOAK

Lan honek erakusten digun bezala hitanoaren barnean landa lan asko egiteke dagoela: elkarrizketak burutu, behaketetan parte hartu, informazio gehiago bildu... eta lerro ezberdinak ireki hikaren ikerketan sakontzeko.

Hau ez da hitanoaren inguruko ikerketa sakon bat izan, baina hausnarketarako gai ezberdinak mahaigaineratzeko balioko digu. Ene ustez ahalik eta azkarren landu beharreko ikergaiak dira arrazoi ezberdinak direla medio: nokaren egoera, hikaren erabilera, hezkuntzan ematen zaion tratua, hitanoak barnebiltzen dituen arauen inguruko eztabaida

eta hauen eragina... Eta etorkizunera begira jorratu daitezkeen (edo beharrik badagoen) ildoen inguruan antropologiak aportazio handia eskaini dezake.

Gaiaren inguruko lan antropologiko batek hitanoaren bueltako orain arteko zenbait irizpide eta iritzi irauli, eztabaida mordo bat sortu eta etorkizunera begirako lan ildoak eskaini ditzazke hezkuntza munduari, aisialdian dabilzan taldeei, euskararen inguruko eragileei eta jendarteari orokorrean.

## **1. HEZKUNTZAK AUTOKRITIKATIK BIDE BERRIAK IREKI BEHAR DITU**

Aho batez baieztatu dute beren hezkuntza ibilbidean hitanoa oso gutxi jorratu dutela. Jorratu dena gainera oso denbora laburrean eta taula bidez egin da. Beren ustez, irakaskuntzatik hitanoari eman zaion tratua onduz ezagutza eskasa eta gaitasun urria jaso dute. Salbuespena herri txikietako mutilak dira, zeinak erabilpen zabalago baterako errekursoak dituzten umetatik jaso dutelako, batez ere etxean eta kalean.

Taula bidezko metodologiarekiko oso kritiko agertu dira eta ez zaie batere aproposa iruditu formatu hau. Beren ustez, maila informalean ibiltzeko soilik behar dutelako eta orduan modu ludikoago batean irakastea proposatzen dute.

Nire ustez, argi geratu da hezkuntzan diarduten irakasle eta arduradun ezberdinek gaiaren inguruko gogoeta egin beharko luketela.

## **2. HITANOAREN ETORKIZUNA FUNZIONALISMOAREN BIDETIK DATOR ETA EZ EUSKARAREN MAITASUNETIK**

Hitanoaren erabiltzaile askok ez du hitanoa zuzen erabiltzen eta gabezi handiak somatzen ditu praktikan. Seguruenik Tolosaldeko gazteen gehiengoa ez da hitanoa hil aurreko azken salbatzailean bilakatuko. Askok ez desagertzearen aldekoak dira, gustokoa dute berau entzutea... baina hau maila teorikoa da, izan ere ez baita beren prioritategiaren artean berau ikastea. Hitanora gazte berriak gehitu badira berarekin bilatzen duten funtzio ezberdinuagatik da, hots, egoera informaletarako aurkitzen dioten baliagarriatasunagatik bestea beste.

Harrigarria bada ere, duen gutxiespenetik haratago, promozio eta propaganda faltaz gain, herri handietako gazte batzuk pixkanaka eta poliki bada ere hitanoa erabiltzen hasten dira.

Gazteen eremuan noka desagertu egin da ia ofizialki. Neska gutxi erabiltzen dute hitanoa (herri txikietako bakan batzuk), mutilengana zuzentzeko eta beren artean hiketan egiten dutenean TOKA erabiltzen

**Hitanoaren baitan paradigma aldaketa bat izaten ari da, hikatzaile belaunaldi berriek ez baitituzte arau hauek betetzen praktikoki, nahiz eta hala eskatzen dieten helduak arau horien arabera tratatu (gehienbat herri txikietan). Berdintasunezko hitano bat bersortzen ari dira hitano hiztunak.**

dute. Bai, neskek beren artean mutilen hitanoa erabiltzen dute (neskena ez dakitelako). Zer pentsatua ematen du fenomeno berri honek eta hausnarketa eta eztabaida sortu beharko lituzke epe motzera. Nolako hitanoa nahi dugu etorkizunean?

### 3. PARADIGMA ALDAKETA: HITANOAREN ARAU SOZIALAK ALDATZEN ARI DIRA

Nesken hitano erabilpen berri honek etorkizunean eragin dezake, nahiz eta hastapen zantzu batzuk soilik diren. Argi eta garbi hitanoaren aldaketa nabarmena bere usadiozko arau sozialekiko atxikimenduan datza. Hitanoaren baitan paradigma aldaketa bat izaten ari da, hikatzaile belaunaldi berriek ez baitituzte arau hauek betetzen praktikoki, nahiz eta hala eskatzen dieten helduak arau horien arabera tratatu (gehienbat herri txikietan). Berdintasunezko hitano bat bersortzen ari dira hitano hiztunak. Herri handietan gurasoen transmisioa ez da gertatu, hezkuntzan ia ez da landu eta kalean lagunartean ikasi duten gazte hika hiztun berriek garaiko arau sozialak aplikatu dizkiete non nahiz eta ezberdintasunak izan pertsonen artean ez duten uste zergaitik bereiztu behar duen hizkuntzak, berdintasunaren ildotik erabiltzen ari direlarik hitanoa.

Hemen belaunaldi heldu eta gazteen arteko borroka ezkutu bat dago, helduen arauak eta gazteen ikuspegiaren artekoa. Beharrezkoa deritzot eragile, aditu eta belaunaldi ezberdien gaiaren inguruko gogoeta.

### 4. HITANOAREN BALIAGARRITASUNA EUSKARAREN ERABILPENERAKO

Hitanoa ez da modu orokortu batean erabiltzen eskualdean, asko erabiltzen da landa herrietan eta oso gutxi bertako hiriburua den Tolosan. Baina hitanoa erabiltzen ari diren bitartean, euskaraz ari dira. Hikatzaile diren gazteei hitanoa erregistro informalerako oso egokia zaie. Bestetik, jatortasuna, gertutasuna... eskeintzen ditu eta hori lortzeko erabiltzen dute. Tolosaldean euskararen kale erabilera bultzatzeko oso egokia da hitanoa eta gaur egun gaztelerak betetzen dituen zenbait espazio irabazteko egokia izan daiteke hitanoaren bultzada.

Zenbait filologo zuzenzalek beren boligrafo gorriak sutsuki astintzen dituzte gazteen mingainak margoztatuz. Baina zer egin dute gazteek? Inongo bidetatik (guraso, hezkuntza...) jaso ez duten hizkera bat erabili? Desagertzen ari den hizkera bat berreskuratu? Jarrera honek gazteleraren erabilera elikatzen du. Nire ustez egokiagoa da alor ezberdinetako lagunek (gazteak barne noski) gaiari adarretatik eutsi eta guztion artean hausnartzea. Hitanoak ziztada bat behar du ahora etortzeko.

*Hizkuntza kaja herramienta bat bezala da eta geroz eta herramienta gehio izan  
kaja barrun hobeto konponduko gea egunerokotasunen hizkuntza hori erabiliz.*

(Ibarrako gazte bat) ●

## **OHARRAK**

1. Landa lana: informazioa biltzeko behaketa eta elkarriketak egitea ikergunean, kasu honetan gazteekin eta beren eremuetan.
2. Elkarriketak banaka eta hiruak egin ditut.
3. Tolosaldeko 150 biztanleko herria
4. Noka: hizketa laguna emakumea denean erabiltzen den hika forma
5. Toka: hizketa laguna gizonezkoa denean erabiltzen den hika forma
6. Elkarriketatuen izenak asmatuak dira beraien pribatitatea mantentzeko
7. Tolosaldea: Gipuzkoako lurralde historikoan biztanle gutxien dituen eskualdea da (45.000 inguru), baina herri gehiena dituena (29). Lau milatik gorako biztanleekin 3 herri ditu (Tolosa, Villabona eta Ibarra) eta hiru milatik beherako 26 udallerri.
8. Espazio faltagatik ez dut sakondu teoria honetan, baina interesgarria deritzot ezagutzen ez dutenek teoria hau ezagutzea
9. Hiru milatik beherako Tolosaldeko 29tik 26 herri, baina 45.000 herritarretik erdiak biltzen dituzte.
10. Tolosa (18.000), Villabona (5.800) eta Ibarra (4.500).

## **BIBLIOGRAFIA**

**ALBERDI LARIZGOITIA, X. (1994):** "Hitanoa nork eta nola erabiltzen duen", in *Euskera XXXIX-2*

Eskuragarri: [http://www.erabili.com/zer\\_berri/muinetik/1055937391](http://www.erabili.com/zer_berri/muinetik/1055937391)  
Begiratua: 2012/11/30

**ALBERDI LARIZGOITIA, X. (1996):** "Euskararen tratamenduak: erabilera". *Iker 9*, Bilbo, Euskaltzaindia.

Eskuragarri: <http://www.euskaltzaindia.net/dok/ikerbilduma/21014.pdf>  
Begiratua: 2012/12/05

**AMONARRIZ, Kike (2008):** "Gazte hizkerak, hizkera gazteak." *Bat soziolinguistika aldizkaria*, 68 zkia, 56-69.

**AYERZA, Maitane eta ZABALA Josune (2010):** *Tolosa= gazteen ahozko-tasunaren laborategi*. Eskuragarri: [www.mintzola.com](http://www.mintzola.com). Begiratua: 2012/11/30

**AYERZA, Maitane eta ZABALA, Josune (2011):** *Hari arika, ezpaineta hika*. Eskuragarri: [www.erabili.com](http://www.erabili.com). Begiratua: 2012/11/23

**AZKUE, Xabier (2000):** *Hitanoa Zumaian*. Zarautz: Zumaiko Udala

**ECHEVERRIA, Begoña (2004):** "Salvar las almas, hablar en los idiomas: conflicto religioso, cambio de género en euskera". Eskuragarri: <http://www.euskara.euskadi.net/r59-bpeduki/es/contenidos/informaciones>. begiratua: 2013/04/26

- ETXEGOIEN, Fermin (2004):** *Neuronak eta zeuronak*. Iruña: Pamiela (upaingos saila).
- GARCIA, Joxerra (1992):** "Usarioarekin borrokan", *Euskaldunon Egunkaria*, 1991/9/13.
- LIZARTZA, Ritxi (2009):** *Hitanoa mintza hadi, lagun!*. Donostia: Mararama.
- SANCHEZ, Jose Maria "Txepetx" (1987):** *Un futuro para nuestro pasado: claves de la recuperación del euskara y teoría social de las lenguas*. Lizarra: autoedición.
- URLA, Jacqueline (1998):** "Lengua y estadística". *Ankulegi gizarte antropologia aldizkaria*, 2. zkia, 11-19.
- URTXINTXA eskola:** "Haur eta gazteen aisialdirako proiektua". Argitaratu gabea.